

GREMIO
DE EDITORES
DE EUSKADI



EUSKADIKO
EDITOREEN
ELKARTEA

CONECTA 
RESEARCH & CONSULTING · BUSINESS SOLUTIONS

EUSKARAZKO ARGITALPENEI BURUZKO VII. TXOSTENA (2011)

Norentzat egina:

Euskadiko Editoreen Elkarte

Gremio de Editores de Euskadi

Babeslea:



KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

EDUKIEN AURKIBIDEA

Sarrera	6
Metodologia.....	7
EREMUA	7
INFORMAZIOAREN BILKETA	7
ESKURATUTAKO INFORMAZIOAREN AURKEZPENA.....	7
AZALPENAK	8
AZTERKETAREN FITXA TEKNIKOA	9
Argitalpen Sektorea, Oro Har.....	10
Argitalpen Pribatua Euskaraz	12
ARGITALPEN PRODUKZIOA	12
Euskaraz argitaratutako izenburuen kopuru tarteak	14
Euskarazko argitalpenak guztizkoarekin alderatuta	15
Argitalpen produkzioa, sailen arabera	16
Euskaraz argitaratutako izenburuak, sailen arabera	17
Euskaraz argitaratutako aleak, sailen arabera	20
Batez besteko argitaraldia euskaraz, sailen arabera	23
KATALOGOKO IZENBURUAK	25
Katalogoko izenburuak, sailen arabera	25
Merkaturatzea	29
2011KO FAKTURAZIOA.....	29
Fakturazioaren zenbatekoa, sailen arabera	29
Fakturazioa sailez sail, jatorriaren arabera.....	32
Liburuak merkaturatzeko bideak	33
Batez besteko prezioak eta saldutako aleak	36
Unibertsitateaz Kanpoko Testuak Euskaraz.....	38
Beste Datu Batzuk	43
ENPLEGUA.....	43
EGILE ESKUBIDEAK	43
Argitalpen Publikoa Euskaraz	45
Laburpena	47
SAILEN ARABERAKO BANAKETARI BURUZ AIPATU BEHARREKO ALDERDIAK.....	50
ZEHAZTAPEN METODOLOGIKOAK	53

TAULEN AURKIBIDEA

1. TAULA.- UNIBERTSOA ETA LAGINA	9
2. TAULA.- EUSKARAZ ARGITARATU ZUTEN ARGITALETXEAK.....	10
3. TAULA.- 2011 KO EUSKARAZKO ARGITALPENARI BURUZKO DATU OROKORRAK.....	11
4. TAULA.- EUSKARAZKO ARGITALPENARI BURUZKO DATU OROKORRAK.....	12
5. TAULA.- ARGITARATUTAKO ALEEN, ARGITARATUTAKO IZENBURUEN ETA BATEZ BESTEKO ARGITARALDIAREN BILAKAERA. 2010. URTEAREKIKO ALDAKETA	13
6. TAULA.- EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUAK	14
7. TAULA.- ARGITALETXE KOPURUA, GUZTIZKOAREKIN ALDERATUTA EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUEN EHUNEKOAREN ARABERA. IPAR EUSKAL HERRIA KONTUAN HARTU GABE.....	15
8. TAULA.- EUSKARAZKO IZENBURUEN ARGITALPENA, SAILEN ARABERA, 2011 IN. ARGITALETXE PRIBATUAK	17
9. TAULA. IZENBURUAK, SAILEN ARABERA. BILAKAERA. 2010. URTEAREKIKO ALDAKETA	19
10. TAULA.- 2011 IN EUSKARAZ EKOITZITAKO ALEAK, SAILEN ARABERA (MILAKOTAN). ARGITALETXE PRIBATUAK	20
11. TAULA.- ALEAK, SAILEN ARABERA. BILAKAERA. 2010. URTEAREKIKO ALDAKETA	22
12. TAULA.- BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA EUSKARAZ, SAILEN ARABERA, 2011 IN. ARGITALETXE PRIBATUAK	23
13. TAULA.- BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA, SAILEN ARABERA. BILAKAERA. 2010. URTEAREKIKO ALDAKETA.....	24
14. TAULA.- KATALOGOKO EUSKARAZKO IZENBURUAK 2011 IN. ARGITALETXE PRIBATUAK	25
15. TAULA.- KATALOGOKO EUSKARAZKO IZENBURUAK, SAILEN ARABERA, 2011 IN. ARGITALETXE PRIBATUAK	26
16. TAULA. IZENBURU BIZIAK, SAILEN ARABERA. BILAKAERA. 2010. URTEAREKIKO ALDAKETA	27
17. TAULA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOA 2011 IN. ARGITALETXE PRIBATUAK.....	29
18. TAULA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOA 2011 IN, SAILEN ARABERA. ARGITALETXE PRIBATUAK	29
19. TAULA.- FAKTURAZIOA, SAILEN ARABERA. BILAKAERA. 2010. URTEAREKIKO ALDAKETA	31
20. TAULA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOA 2011 IN, MERKATURATZE BIDEEN ARABERA. ARGITALETXE PRIBATUAK	33
21. TAULA.- FAKTURAZIOA, MERKATURATZE BIDEEN ARABERA. BILAKAERA. 2010. URTEAREKIKO ALDAKETA.....	34
22. TAULA.- SALDUTAKO ALEAK. BILAKAERA. 2010. URTEAREKIKO ALDAKETA.....	36
23. TAULA.- ARGITARATUTAKO ALEEN, SALDUTAKO ALEEN ETA FAKTURAZIOAREN ARTEKO ERLAZIOA.....	36
24. TAULA.- EAE, NFE, IPAR EH ETA BESTE AUTONOMIA ERKIDEGO BATZUEN PARTE HARTZEA, HAINBAT MAGNITUDETAN	37
25. TAULA.- 2011 IN EUSKARAZ ARGITARATUTAKO UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IZENBURUAK	38
26. TAULA.- UNIBERTSITATEAZ KANPOKO EUSKARAZKO IZENBURUAK. BILAKAERA. 2010. URTEAREKIKO ALDAKETA	38
27. TAULA.- 2011 IN ARGITARATUTAKO UNIBERTSITATEAZ KANPOKO EUSKARAZKO TESTUEN ALEAK (MILAKOTAN)	39

28. TAULA.- UNIBERTSITATEAZ KANPOKO EUSKARAZKO ALEAK (X 1.000). 2010. URTEAREKIKO BILAKAERA	39
29. TAULA.- UNIBERTSITATEAZ KANPOKO EUSKARAZKO TESTUEN BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA 2011 IN.....	40
30. TAULA.- UNIBERTSITATEAZ KANPOKO TESTUEN BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA. BILAKAERA. 2010. URTEAREKIKO ALDAKETA	40
31. TAULA.- UNIBERTSITATEAZ KANPOKO EUSKARAZKO TESTUEN IZENBURU BIZIAK 2011 IN41	
32. TAULA.- UNIBERTSITATEAZ KANPOKO EUSKARAZKO TESTUEN IZENBURU BIZIAK. BILAKAERA. 2010. URTEAREKIKO ALDAKETA	41
33. TAULA.- UNIBERTSITATEAZ KANPOKO EUSKARAZKO TESTUEN FAKTURAZIOA 2011 IN .	42
34. TAULA.- UNIBERTSITATEAZ KANPOKO EUSKARAZKO TESTUEN FAKTURAZIOA. BILAKAERA. 2010. URTEAREKIKO ALDAKETA	42
35. TAULA. NOMINAPEKO LANGILEEN KOPURUA. ENPRESA PRIBATUAK	43
36. TAULA.- ESKUBIDEAK EROSTEKO EGINDAKO ORDAINKETEN ESTIMAZIOA.....	44
37. TAULA.- ERAKUNDE PUBLIKOEN ARGITALPENEN BALIOEN BANAKETA, SAILEN ARABERA46	
38. TAULA.- LORTUTAKO BALIOEN BANAKETA, ARGITALETXEEN TIPOLOGIAREN ARABERA. BALIO ABSOLUTUAK	47
39. TAULA.- LORTUTAKO BALIOEN BANAKETA, ARGITALETXEEN TIPOLOGIAREN ARABERA. % BERTIKALAK.....	47
40. TAULA.- EUSKARAZKO ARGITALPENAREN RATIO NAGUSIAK, ARGITALETXEEN TIPOLOGIAREN ARABERA.....	48
41. TAULA.- EUSKARAZKO LIBURUEN ARGITALPENAREN ETA FAKTURAZIOAREN DATU NAGUSIAK, SAILEN ARABERA. ARGITALETXE PRIBATUAK	49
42. TAULA.- EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUEN ETA KATALANEZ, GALIZIERAZ, GAZTELANIAZ ETA ESPAINIAN ARGITARATUTAKO IZENBURUEN DATUEN ARTEKO ALDERAKETA, SAILEN ARABERA (ARGITALETXE PRIBATUAK).....	50
43. TAULA.- EUSKARAZ ARGITARATUTAKO ALEEN ETA KATALANEZ, GALIZIERAZ, GAZTELANIAZ ETA ESPAINIAN ARGITARATUTAKO ALEEN DATUEN ARTEKO ALDERAKETA, SAILEN ARABERA (ARGITALETXE PRIBATUAK)	51
44. TAULA.- EUSKARAZKO ARGITALPEN BIZIEN ETA KATALANEZ, GALIZIERAZ, GAZTELANIAZ ETA ESPAINIAN ARGITARATUTAKOEN DATUEN ARTEKO ALDERAKETA, SAILEN ARABERA (ARGITALETXE PRIBATUAK)	51
45. TAULA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOAREN ETA KATALANEZ, GALIZIERAZ, GAZTELANIAZ ETA ESPAINIAN NAHIZ FRANTZIAN LORTUTAKOAREN DATUEN ARTEKO ALDERAKETA, SAILEN ARABERA (ARGITALETXE PRIBATUAK).....	51
46. TAULA.- HAUR ETA GAZTE LITERATURA ETA UNIBERTSITATEAZ KANPOKO TESTUAK SAILEN EHUNEKOAK, HAINBAT HIZKUNTZATAN, AZTERTUTAKO MAGNITUDEEN ARABERA (ARGITALETXE PRIBATUAK)	52

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. GRAFIKOA.- ARGITALETXEEN TIPOLOGIA	10
2. GRAFIKOA.- ARGITALETXEEN EHUNEKOA, GUZTIZKOAREKIN ALDERATUTA EUSKARAZ ARGITARATUTAKO LANEN ARABERA	15
3. GRAFIKOA.- SAIL BAKOITZEKO EUSKARAZKO IZENBURUEN BANAKETA, ARGITALETXE PRIBATUETAN, JATORRIAREN ARABERA (%-TAN).....	19
4. GRAFIKOA.- SAIL BAKOITZEAN EUSKARAZ ARGITARATUTAKO ALEEN BANAKETA, ARGITALETXE PRIBATUETAN, JATORRIAREN ARABERA (%-TAN).....	22
5. GRAFIKOA.- KATALOGOKO EUSKARAZKO IZENBURUEN BANAKETA SAILEN ARABERA, ARGITALETXE PRIBATUETAN. JATORRIAREN ARABERA (%-TAN).....	28
6. GRAFIKOA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOAREN BANAKETA, SAILEN ARABERA, ARGITALETXE PRIBATUETAN (%-TAN).....	32
7. GRAFIKOA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOAREN BANAKETA, MERKATURATZE BIDEEN ARABERA, ARGITALETXE PRIBATUETAN (%-TAN).....	35
8. GRAFIKOA.- LORTUTAKO BALIOAK, ARGITALETXEEN TIPOLOGIAREN ARABERA. (% BERTIKALAK)	48
9. GRAFIKOA.- HAUR ETA GAZTE LITERATURA ETA UNIBERTSITATEAZ KANPOKO TESTUAK SAILEN ARGITALPENA ETA FAKTURAZIOA AZTERTUTAKO HIZKUNTZETAN (%-tan)	52

SARRERA

Txosten hau euskarazko argitalpenei buruzko zazpigarrena da, 2011. urteari dagokiona. 2005ean, Euskadiko Editoreen Elkarteak euskarazko argitalpenei buruzko azterketa bat egiteko eskatu zion CONECTA Research & Consulting enpresari; alegia, Euskal Autonomia Erkidegoan euskaraz argitaratzen diren lanen datuei beste autonomia erkidego batzuetan eta Ipar Euskal Herrian argitaratzen direnenak gehituko zizkien azterketa bat.

Azterketak euskarazko liburuen produkzioari, eskaintzari eta fakturazioari buruzko datu guztiak jasotzen ditu, lurralde osoa aintzat hartuta; hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako Foru Erkidegoko eta Frantziako estatuko (Ipar Euskal Herriko) produkzioa biltzen ditu. Horrez gainera, badira hainbat argitaletxe egoitza lurralde horietatik kanpo duten arren euskarazko lanak argitaratzen dituztenak, eta horiek ere kontuan hartzen ditu.

Bestalde, euskarazko argitalpenak plazaratzen dituzten Administrazio Publikoko erakundeen eta haren mendeko entitateen datuak ere jasota datoz azterketan.

Azkenik, esker ona adierazi nahi diegu, eman diguten laguntzagatik, Euskadiko Editoreen Elkarteari, Conecta enpresak bidalitako galdeketari erantzun dioten enpresei eta Espainiako Editoreen Elkartearen Federazioari, horiei esker egin ahal izan baitugu ikerlan hau.

METODOLOGIA

EREMUA

Ikerketa honen azterketa eremua **euskarazko liburuaren argitalpena da**, eta honako enpresa edo erakunde mota hauek hartu ditugu kontuan ikerketa egiteko:

- Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) argitaletxe pribatuak. Elkarteen eta fundazioen argitalpen zerbitzuak ere sartu ditugu kategorian honen barruan.
- Nafarroako Foru Erkidegoko (NFE) argitaletxe pribatuak.
- Ipar Euskal Herriko argitaletxeak (Ipar EH).
- Beste autonomia erkidego batzuetako argitaletxeak (Beste AE batzuk).
- Erakunde publikoak (EP).

Horiek guztiak 2011. urtean argitalpenaren eremuan barne merkatuan jardun zuten argitaletxeak, enpresak edo erakundeak dira.

INFORMAZIOAREN BILKETA

Honako prozedura hauei jarraitu diegu:

- Euskadiko enpresa pribatuei buruzko informazioa erabili dugu, 2011ko Euskal Autonomia Erkidegoko liburuaren barne merkataritzaren txostenean bildua.
- Gainera, galdetegi egituratu bat erabili dugu Euskal Herritik kanpoko argitalpen enpresa pribatuen datuak biltzeko. Posta elektronikoz igorri diegu.
- Bestalde, erakunde publikoei buruzko informazioa bildu dugu, telefono bidezko galdeketa baten bidez.
- ISBN datu basea ere erabili dugu.

ESKURATUTAKO INFORMAZIOAREN AURKEZPENA

Txosten honetan, euskarazko argitalpenari buruzko datu orokorrak emango ditugu aditzera lehendabizi: eragile argitaratzaileei eta argitaratutako izenburuei buruzkoak, hain zuzen. Ondoren, argitalpen pribatuari buruzko datuak zehatz-mehatz aztertuko ditugu (Euskadi, Nafarroa, Ipar Euskal Herria eta gainerako autonomia erkidegoak kontuan hartuta). Euskal Autonomia Erkidegoari buruzko informazioa Euskal Autonomia Erkidegoko liburuaren barne merkataritzari buruzko txostenean dago jasota, baina txosten honetan Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko datuak eta euskarazko lanak argitaratzen dituzten gainerako autonomia erkidegoetako argitaletxe pribatuenak erantsi dizkiogu informazio horri.

Ondoren, erakunde publikoen argitalpenei buruzko informazioa eskainiko dugu. Dena dela, kontuan hartu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko barne merkataritzaren urteko txostenaren barruan Euskadiko unibertsitate publikoak ere sartzen direla, eta, beraz, horiei buruzko datuak ez dira atal horretan sartuko, argitalpen pribatuen atalean baizik.

AZALPENAK

Azterketan, euskaraz argitaratutako lanei buruzko galderak egin ditugu.

Azterketa honen emaitzetan agertzen diren argitaratutako lanen kopuruaren eta ISBNan (ISBN datu basea edo Liburuaren Espainiar Argitalpenaren Panoramika) 2011n erregistratutako liburuaren kopuruaren artean dauden aldeak erraz azal daitezke, gure ustez: berrargitaratutako lanak dira, argitaratzaile berak argitaratuak, baina aldaketarik izan ez dutenez, ez da horientzat ISBN zenbaki berririk eskatu.

AZTERKETAREN FITXA TEKNIKOA

Lanaren egilea: CONECTA Research & Consulting.

Unibertsoa: ISBNko datuen arabera, 2011. urtean 115 argitaletzek argitaratu zituzten lanak euskaraz. Ipar Euskal Herriko 6 argitaletxe gehitu behar zaizkie horiei.

Laginaren tamaina: 66 argitaletxe pribatuk erantzun diote galdeketari, hau da, argitaletxe pribatuen unibertsoaren % 68,1ek. Beste autonomia erkidegoetatik lortutako erantzunari dagokionez, euskarazko izenburu gehien dituzten argitaletxeen % 30,0ek erantzun diote galdeketari. Horien garrantzia kontuan hartuta, talde horrek duen euskarazko fakturazioaren adierazgarritzat jotzen dugu.

Argitaletxe pribatuen % 68,1en eta erakunde publikoen % 16,7ren erantzunak bildu dira guztira. Galdeketari erantzun ez dieten argitaletxeei buruzko informazioa bigarren mailako datuetatik jaso dugu.

I. TAULA.- UNIBERTSOA ETA LAGINA

	Unibertsoa	Lagina	Laginaren %
EAE	66	52	78,8
NFE	5	2	40,0
Ipar EH	6	6	100,0
Beste AE batzuk	20	6	30,0
Argitaletxe pribatuak, guztira	97	66	68,1
EP	24	4	16,7
Guztira	121	70	57,9

Galdeketa mota: egituratua.

Aplikazioa: norberak betea.

Landa lanerako datak: 2012ko iraila/urria, beste autonomia erkidego batzuetako argitaletxe pribatuei, argitaletxe publikoei eta Ipar Euskal Herriko argitaletxeei dagokienez. Euskadiko argitaletxe pribatuei buruzko datuak 2012ko martxoaren 12a eta irailaren 10a bitartean lortu genituen.


Taulan jartzea: Datuak Conecta Research & Consulting enpresan grabatu eta taulan jarri dira.

ARGITALPEN SEKTOREA, ORO HAR

Espanian eta Frantzia, 2011. urtean, 121 enpresak argitaratu zuten lanen bat euskaraz. Enpresa horien tipologia eta kokapen geografikoa kontuan hartuta, honela banatzen dira:

- Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE)¹ duten 66 argitaletxe pribatu (Euskadiko barne merkataritzari buruzko ikerketaren bitartez aztertu direnak). Talde horretan sartzen dira Euskadiko Editoreen Elkartearen bildutako argitaletxeak nahiz horren barruan egon ez arren 2011. urtean argitalpen sektorean jardun zuten erkidego horretako argitaletxeak.
- Nafarroako Foru Erkidegoko (NFE) 5 argitaletxe pribatu.
- Ipar Euskal Herriko probintzietako (Frantzia) 6 argitaletxe pribatu.
- Egoitza nagusia beste autonomia erkidego batean duten 20 argitaletxe pribatu.
- Argitalpen zerbitzua duten 24 erakunde publiko (EP). Horiek izendatzeko *eragile argitaratzaile* hitza erabiltzea komeni da, erakunde horien jardura nagusia ez baita argitalpena.

I. GRAFIKOA.- ARGITALETXEEN TIPOLOGIA



2. TAULA.- EUSKARAZ ARGITARATU ZUTEN ARGITALETXEAK

	Argitaletxe pribatuak					EP	% bertikalak, guztira
	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk		
EAE	83	66	-	-	-	17	68,6
NFE	9	2	3	-	-	4	7,4
Ipar EH	6	-	-	6	-	-	5,0
Kataluniako AE	6	-	-	-	6	-	5,0
Madrilgo AE	12	-	-	-	10	2	9,9
Beste AE batzuk	5	-	-	-	4	1	4,1
Guztira	121	68	3	6	20	24	100,0
% horizontalak	100,0	56,2	2,5	5,0	16,5	19,8	

¹ Nafarroako bi argitaletxe talde horretan sartu ditugu, Euskadiko Editoreen Elkartearen barruan daudelako eta EAEko liburuaren barne merkataritzari buruzko txostenean bilduta daudelako haiei buruzko datuak. Halaber, hezkuntza erakunde publiko bat ere sartu dugu.

Beste taula honetan, zehatzago ikus dezakegu euskarazko lanak argitaratu zituzten mota bakoitzeko argitaletxeen kopurua, baita Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo zer argitaletzek argitaratu zituen euskarazko izenburu gehien ere. Egileen eta editoreen datuak ere agertzen dira, informazio gisa (ez zaizkio emaitza osoari gehitu).

3. TAULA.- 2011 KO EUSKARAZKO ARGITALPENARI BURUZKO DATU OROKORRAK

Argitaratzaile mota	Probintzia	Eragileak	Izenburuak, guztira	Argitaletxeak
Guztira		141	1.991	
Egileak/editoreak, guztira		26	36	
Egileak/editoreak, guztira	Araba	3	3	
	Gipuzkoa	11	15	
	Bizkaia	9	13	
	Nafarroa	2	4	
	Madril	1	1	
Bartzelona	1	1		
Pribatua, guztira		91	1.822	
Argitaletxe pribatuak, guztira	EAE	66	1.402	
	Araba	5	10	
	Gipuzkoa	28	745	
	Bizkaia	33	647	
	Nafarroa	5	58	Pamiela
				Txalaparta Argitaletxea
				Igela Argitaletxea
	Bartzelona	6	20	Vicens Vives
	Madril	10	287	Anaya
				Susaeta
				Bruño
	Pontevedra	1	2	
Badajoz	1	50		
Valentzia	1	2		
Malaga	1	1		
Publikoak, guztira		24	133	
Kultura erakunde publikoak		1	1	
	Madril	1	1	
Hezkuntza erakunde publikoak		6	60	
	Gipuzkoa	1	2	
	Bizkaia	3	56	Euskal Herriko Unibertsitatea
	Nafarroa	1	1	
	Bartzelona	1	1	
Administrazio autonomikoko erakunde ofizialak		4	52	
	Araba	2	46	Euskal Herriko Argitalpen Zerbitzu Zentrala
	Gipuzkoa	1	3	
Nafarroa	1	3		
Estatuko administrazio erakunde ofizialak		1	1	
	Gipuzkoa			
Madril	1	1		
Estatuko toki administrazio erakunde ofizialak		12	19	
	Araba	1	6	Arabako Foru Aldundia
	Gipuzkoa	6	7	Gipuzkoako Foru Aldundia
	Bizkaia	3	3	
	Nafarroa	2	3	

ARGITALPEN PRIBATUA EUSKARAZ

ARGITALPEN PRODUKZIOA

2011. urtean, 1.895 izenburu² kaleratu zituzten euskaraz argialetxe pribatuek, 2010ean baino % 0,9 gehiago, eta 2009an baino % 0,6 gehiago. Argitaratutako izenburuen % 78,5 EAEko argialetxe pribatuek eman zituzten argitara; % 1,0, Nafarroako Foru Erkidegokoek; % 1,4, Ipar Euskal Herrikoek, eta % 19,1, beste autonomia erkidego batzuetakoek.

2011. urtean, 3.351 mila ale argitaratu zituzten, aurreko urtean baino % 6,1 gutxiago eta 2009an baino % 10,9 gutxiago. Aleen % 90,9 EAEn ekoitzi ziren.

Argitalpenaren bilakaera ekoizpenaren jatorriaren arabera kontuan hartuz gero, 2010. eta 2011. urteen artean izenburuen edizioa % 11,6 jaitsi zen Ipar Euskal Herrian; NFEen, beste autonomia erkidego batzuetan eta EAEn, berriz, gora egin zuen argitaratutako izenburuen kopuruak, % 14,8, % 1,7 eta % 0,7, hurrenez hurren.

Batez besteko argitaraldia izenburuko 1.769 alekoa izan zen, 2010ekoa baino 132 ale txikiagoa izenburuko, eta 2009koa baino 230 ale txikiagoa. Jaitsiera hori NFEen (549 ale gutxiago izenburuko) eta beste autonomia erkidego batzuetan (232 ale gutxiago izenburuko) izandako beherakadak eragin zuten nagusiki.

Taula hauetan, euskarazko argitalpenari buruzko datu orokorrak daude adierazita, baita azken hiru urteetako bilakaera ere, argitaratutako izenburuei, argitaratutako alei eta batez besteko argitaraldiari dagokienez.

4. TAULA.- EUSKARAZKO ARGITALPENARI BURUZKO DATU OROKORRAK

	Argitaratutako izenburuak	%	Argitaratutako aleak	%	Batez besteko argitaraldia
Guztira	1.895	100,0	3.351.371	100,0	1.769
EAE	1.486	78,5	3.045.768	90,8	2.050
NFE	20	1,0	10.849	0,3	556
Ipar EH	27	1,4	29.900	0,9	1.107
Beste AE batzuk	362	19,1	264.854	7,9	732

² Euskal Herriko Unibertsitatekoak barne.

5. TAULA.- ARGITARATUTAKO ALEEN, ARGITARATUTAKO IZENBURUEN ETA BATEZ BESTEKO ARGITARALDIAREN BILAKAERA. 2010. URTEAREKIKO ALDAKETA

	Argitaratutako izenburuak			
	2009	2010	2011	% aldaketa
Guztira	1.882	1.879	1.895	0,9
EAE	1.561	1.476	1.486	0,7
NFE	20	18	20	14,8
Ipar EH	27	29	27	-8,2
Beste AE batzuk	274	356	362	1,7

	Argitaratutako aleak (x 1.000)			
	2009	2010	2011	% aldaketa
Guztira	3.762	3.601	3.351	-6,1
EAE	3.354	3.176	3.046	-9,2
NFE	21	20	11	-48,6
Ipar EH	38	33	30	-20,3
Beste AE batzuk	350	373	265	-24,4

	Batez besteko argitaraldia			
	2009	2010	2011	Aldea
Guztira	1.999	1.916	1.769	-147
EAE	2.148	2.152	2.050	-102
NFE	1.055	1.119	556	-563
Ipar EH	1.389	1.107	1.107	--
Beste AE batzuk	1.278	1.047	732	-316

Euskaraz argitaratutako izenburuen kopuru tartekak

2011n euskaraz argitaratu zuten argitaletxe pribatu guztien (122 argitaletxe) % 74,5ek 1-9 izenburu argitaratu zituzten euskaraz. Argitaletxeen % 34,7k izenburu bakarra argitaratu zuten euskaraz; % 31,4k, 2-4 izenburu; % 8,3k, 5-9 izenburu, eta % 25,6k, 10 izenburu edo gehiago.

6. TAULA.- EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUAK

	Guztira (%)	Argitaletxe kopurua, guztira	Argitaletxe pribatuak				Argitaletxe publikoak
			EAE ³	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk	
Guztira	100,0	121	68	3	6	20	24
1 izenburu	34,7	42	19	1	-	9	13
2-4 izenburu	31,4	38	19	1	6	5	7
5-9 izenburu	8,3	10	7	-	-	1	2
10-49 izenburu	14,9	18	15	1	-	1	1
50 izenburu edo gehiago	10,7	13	8	-	-	4	1

³ Gogoan izan EAeko datuen baitan hezkuntza erakunde publiko bat dagoela.

Euskarazko argitalpenak guztizkoarekin alderatuta

Argitaletxe pribatu guztien (91, Ipar Euskal Herrikoak kenduta) % 33,5ek euskaraz argitaratu zituzten beren izenburuen % 75 baino gehiago; hain zuzen ere, 30 argitaletxek. Horietatik 29 EAEkoak ziren, eta bakar bat NFEkoa.

Argitaletxe pribatuetatik 11k (10 EAEkoak) euskaraz argitaratu zituzten lanen % 50 eta % 75 artean. 9 enpresak lanen % 25 eta % 49 bitarte argitaratu zituzten euskaraz (8 ziren EAEkoak). 41 argitaletxe pribatuk, berriz, lanen % 25 baino gutxiago ekoitzi zituzten euskaraz (21 EAEkoak eta 20 beste autonomia erkidego batzuetakoak).


Azterlanean jasotako 24 erakunde publikoei dagokienez, 14k euskaraz argitaratu zituzten beren izenburuen % 75etik gora.

7. TAULA.- ARGITALETXE KOPURUA, GUZTIZKOAREKIN ALDERATUTA EUSKARAZ ARGITARATUTAKO IZENBURUEN EHUNEKOAREN ARABERA. IPAR EUSKAL HERRIA KONTUAN HARTU GABE

Argitaletxe kopurua	Guztizko orokorra	Argitaletxe pribatuak *			EP	
		Pribatuak, guztira	EAE	NFE		Beste AE batzuk
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	
% 25 baino gutxiago	40,5	44,5	30,2	-	100,0	25,0
% 25 - % 49	9,3	9,6	11,3	33,3	-	8,3
% 50 - % 75	11,5	12,4	15,1	33,3	-	8,3
% 75 baino gehiago	38,7	33,5	43,4	33,3	-	58,3

* Ipar Euskal Herria kontuan hartu gabe

2. GRAFIKOA.- ARGITALETXEEN EHUNEKOAK, GUZTIZKOAREKIN ALDERATUTA EUSKARAZ ARGITARATUTAKO LANEN ARABERA



Argitalpen produkzioa, sailen arabera

Atal honetan, euskarazko argitalpen produkzioari buruzko datuak emango ditugu, sailen arabera (argitaratutako izenburuak, argitaratutako aleak, batez besteko argitaraldia eta katalogoko izenburu biziak). Honako hauek dira sail bakoitzaren edukiak:

- Literatura: eleberria, poesia eta antzerkia, bestelako literatura.
- Haur eta gazte literatura: haurrentzako eta gazteentzako literatura eta argitalpenak.
- Unibertsitateaz kanpoko testuak: epigrafe honetan sartzen dira Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH), Batxilergoko eta Lanbide Heziketako (LH) testuak eta liburu nahiz material osagarriak.
- Testu zientifiko teknikoak eta unibertsitate testuak: zientzia hutsak, medikuntza, teknika eta zientzia aplikatuak, enpresa ekonomia. Sakontasun eta zorroztasun mailaren arabera, eta norentzat egina den kontuan hartuta: unibertsitateko ikasleak, teknikari adituak eta antzekoak.
- Giza eta gizarte zientziei buruzko testuak: hainbat diziplina hartzen ditu, soziologia, ekonomia, zuzenbidea, psikologia, erlijioa eta geografia eta historia, besteak beste.
- Liburu praktikoak: etxeko ekonomiari buruzko liburuak, sukaldaritzari buruzkoak, bidaia gidak, mapak, etab.
- Dibulgazioa orokorra: sail horretan sartzen dira *Dibulgazioko beste liburu batzuk* saileko lanak (arte ederrak, musika, kirolak, etab.).
- Hiztegiak eta entziklopediak: ale bakarreko edo bat baino gehiagoko hiztegiak sartzen dira, aurreko edizioan bezala.

Hainbat atal daude izenburu gutxi biltzen dituztenak, eta horregatik, elkartu egin ditugu, taulen eta grafikoaren diseinua errazteko:

- Testu zientifikoak eta gizarte zientziei buruzkoak: *Testu zientifikoak eta teknikoak eta unibertsitate testuak* saila eta *Giza eta gizarte zientziei buruzko testuak* saila elkartu ditugu.
- Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak: *Liburu praktikoak eta Dibulgazio orokorra* sailak barne hartzen ditu.
- Beste gai batzuk: *Hiztegiak eta entziklopediak* eta *Bestelakoak* sailak elkartu ditugu.

Euskaraz argitaratutako izenburuak, sailen arabera

Argialetxe pribatuek euskarazko 1.895 izenburu argitaratu zituzten, guztira, 201 In. Lan horien % 78,5 EAEn plazaratu ziren (1.486 izenburu); % 1,0 (20 izenburu), NFEen; % 1,4 (27 izenburu,) Ipar Euskal Herrian, eta % 19,1 (362 izenburu), beste autonomia erkidego batzuetan.

Ohikoa denez, Unibertsitateaz kanpoko testuak sailak lortu zuen argialetxe pribatuek euskaraz argitara emandako izenburuen ehuneko handiena, zenbateko osoaren ia erdia (% 47,1), hain zuzen. Bigarren ehuneko handiena, % 28,2, Haur eta gazte literatura sailarena izan zen. Bi sail horiek euskaraz argitaratutako izenburu guztien hiru laurden batu zituzten, hots, % 75,3. EAeko edizioan kopuru hori % 47,0koa izan zen.

Beste autonomia erkidego batzuetako sailen arabera ere garrantzitsua izan zen, izenburu guztien % 19,1, hain zuzen ere. Argialetxe horiek ia aipatu berri ditugun sailtako liburuak bakarrik argitaratu zituzten, hau da, Unibertsitateaz kanpoko testuak eta Haur eta gazte literatura sailtakoak. Sail horietakoak izan ziren, hurrenez hurren, beste autonomia erkidego batzuetan argitaratutako izenburuen % 68,5 eta % 28,0. Unibertsitateaz kanpoko testuak sailean euskaraz argitaratutako izenburu guztien % 27,8 beste autonomia erkidego batzuetan ekoitzi zituzten, eta kopuru hori % 18,9koa izan zen Haur eta gazte literatura sailaren kasuan.

8. TAULA.- EUSKARAZKO IZENBURUEN ARGITALPENA, SAILEN ARABERA, 201 IN. ARGIALETXE PRIBATUAK


	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
Guztira (balio absolutuak)	1.895	1.486	20	27	362
Literatura	251	228	10	13	-
<i>Eleberria</i>	182	165	6	12	-
<i>Poesia, antzerkia</i>	17	15	1	1	-
<i>Bestelako literatura</i>	51	48	3	-	-
Haur eta gazte literatura	534	423	2	8	101
Unibertsitateaz kanpoko testuak	891	633	5	5	248
<i>Haur Hezkuntza</i>	161	121	-	-	40
<i>Lehen Hezkuntza</i>	271	202	-	5	64
<i>DBH</i>	261	155	-	-	105
<i>Batzilergoa</i>	62	25	2	-	35
<i>Lanbide Heziketa</i>	7	3	-	-	4
<i>Liburu eta material osagarriak</i>	129	126	3	-	-
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	82	74	-	-	8
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	44	41	2	-	-
Beste gai batzuk	92	86	-	1	5

* Nafarroako Foru Erkidegoko bi argialetxe daude EAEn sartuta

	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
Guztira (% bertikalak)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Literatura	13,2	15,3	50,0	48,1	-
<i>Eleberria</i>	9,6	11,1	30,4	44,4	-
<i>Poesia, antzerkia</i>	0,9	1,0	5,1	3,7	-
<i>Bestelako literatura</i>	2,7	3,3	14,4	-	-
Haur eta gazte literatura	28,2	28,5	9,8	29,6	28,0
Unibertsitateaz kanpoko testuak	47,1	42,6	27,7	18,5	68,5
<i>Haur Hezkuntza</i>	8,5	8,1	-	-	11,0
<i>Lehen Hezkuntza</i>	14,3	13,6	0,8	18,5	17,6
<i>DBH</i>	13,8	10,4	0,6	-	29,1
<i>Batzilergoa</i>	3,3	1,7	10,9	-	9,7
<i>Lanbide Heziketa</i>	0,4	0,2	-	-	1,1
<i>Liburu eta material osagarriak</i>	6,8	8,5	15,4	-	-
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	4,3	5,0	-	-	2,2
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	2,3	2,8	12,5	-	-
Beste gai batzuk	4,8	5,8	-	3,7	1,4

Euskaraz argitaratutako izenburuen % 13,2 lortuta, Literatura saila izan zen hirugarren sail garrantzitsuena.

Literaturan argitaratutako izenburuen % 72,7 eleberriak izan ziren; % 6,8, poesia eta antzerkia, eta % 20,4, bestelako literatura, gora egin zuena (% 13,9 2010ean).



Argitaratuko izenburuen kopuruak % 0,8 bakarrik egin zuen gora 2010etik, hau da, 15 izenburu gehiago argitaratu ziren. Sailen arabera, beheraka izan zen Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak sailean (% 60,9 gutxiago) eta Literatura sailean (% 9,8 gutxiago). Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak sailean, berriz, igo egin zen izenburuen kopurua (% 32,2).


9. TAULA. IZENBURUAK, SAILEN ARABERA. BILAKAERA. 2010. URTEAREKIKO ALDAKETA

	2009		2010		2011		Aldaketa	
	Absolutuak	%	Absolutuak	%	Absolutuak	%	Absolutuak	%
Sailak, guztira	1.882	100,0	1.879	100,0	1.895	100,0	0,8	
Literatura	251	13,3	278	14,8	251	13,2	-9,8	-1,5
Haur eta gazte literatura	499	26,5	532	28,3	534	28,2	0,5	-0,1
Unibertsitateaz kanpoko testuak	953	50,6	834	44,4	891	47,0	6,8	2,7
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	90	4,8	62	3,3	82	4,3	32,2	1,0
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	45	2,4	112	6,0	44	2,3	-60,9	-3,6
Beste gai batzuk	45	2,4	61	3,3	92	4,9	51,6	1,6

2011n euskaraz argitara emandako izenburuen % 78,5 EAEko argitaletxe pribatuek plazaratu zituzten. Argitaletxe horien sail nagusi guztietako argitalpenak zenbateko osoaren batez besteko ehunekoak gaintu zuen, Unibertsitateaz kanpoko testuak sailekoak izan ezik (% 71,0). Izenburuen % 19,1 beste autonomia erkidego batzuetan argitaratu zituzten, eta ehuneko hori gaintu egin zuen, hain justu, Unibertsitateaz kanpoko testuak sailak, % 27,8 lortu baitzuen, 2010ean baino kopuru handiagoa (% 22,1, 2010ean).

3. GRAFIKOA.- SAIL BAKOITZEKO EUSKARAZKO IZENBURUEN BANAKETA, ARGITALETXE PRIBATUETAN, JATORRIAREN ARABERA (%-TAN)

Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
100,0	78,5	1,0	1,4	19,1



Euskaraz argitaratutako aleak, sailen arabera

2011n, argitaletxe pribatuek 3.351.371 ale eman zituzten argitara euskaraz. Horien % 90,9 EAEn plazaratu zituzten; % 0,3 NFEen; % 0,9, Ipar Euskal Herrian, eta % 7,9, beste autonomia erkidego batzuetan.

Euskaraz ekoiztutako ale gehienak Unibertsitateaz kanpoko testuak sailekoak izan ziren, hots, ale guztien % 56,2. Bigarren sail garrantzitsuena Haur eta gazte literatura izan zen, zenbateko osoaren % 25,3 lortuta. Bi sail horietako lanek batu zuten euskaraz argitaratutako ale guztien % 81,5. Batura hori % 80,4koa izan zen EAEn argitaratutako aleen kasuan, eta % 96,9koa, beste autonomia erkidego batzuetan argitaratutako aleen kasuan.


10. TAULA.- 2011N EUSKARAZ EKOITZITAKO ALEAK, SAILEN ARABERA (MILAKOTAN). ARGITALETXE PRIBATUAK

	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
Guztira (balio absolutuak) (X 1.000)	3.351	3.046	11	30	265
Literatura	332	319	3	9	-
<i>Eleberria</i>	232	222	1	8	-
<i>Poesia, antzerkia</i>	15	15	-	-	-
<i>Bestelako literatura</i>	84	82	2	-	-
Haur eta gazte literatura	849	760	2	11	77
Unibertsitateaz kanpoko testuak	1.884	1.690	4	10	180
<i>Haur Hezkuntza</i>	400	392	-	-	8
<i>Lehen Hezkuntza</i>	728	636	-	10	81
<i>DBH</i>	371	306	-	-	65
<i>Batzilergoa</i>	82	57	-	-	24
<i>Lanbide Heziketa</i>	5	3	-	-	2
<i>Liburu eta material osagarriak</i>	295	295	-	-	-
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	79	74	-	-	5
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	107	106	1	-	-
Beste gai batzuk	100	97	-	-	3

	Guztira	Euskadi	Nafarroa	Ipar EH	Beste AE batzuk
Guztira (% bertikalak)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Literatura	9,9	10,5	32,0	30,0	-
<i>Eleberria</i>	6,9	7,3	12,0	28,0	-
<i>Poesia, antzerkia</i>	0,5	0,5	4,0	1,0	-
<i>Bestelako literatura</i>	2,5	2,7	16,0	1,0	-
Haur eta gazte literatura	25,3	25,0	16,0	36,0	29,1
Unibertsitateaz kanpoko testuak	56,2	55,5	40,0	34,0	67,9
<i>Haur Hezkuntza</i>	11,9	12,9	-	-	2,9
<i>Lehen Hezkuntza</i>	21,7	20,9	-	34,0	30,6
<i>DBH</i>	11,1	10,1	-	-	24,4
<i>Batzilergoa</i>	2,4	1,9	-	-	9,2
<i>Lanbide Heziketa</i>	0,1	0,1	-	-	0,6
<i>Liburu eta material osagarriak</i>	8,8	9,7	-	-	0,1
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	2,4	2,4	-	-	1,9
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	3,2	3,5	12,0	-	-
Beste gai batzuk	3,0	3,2	-	-	1,2

Kasu honetan ere, hirugarren sail garrantzitsuena Literatura izan zen, 2011n euskaraz ekoiztutako aleen % 9,9 izan baitziren sail horretakoak.

Literatura sailean, aleen % 70,0 eleberriak izan ziren; % 4,7, poesia eta antzerkia, eta % 25,4, bestelako literatura.



2010. urtearekin alderatuta, argitaratutako aleen kopuruak % 6,9 egin zuen behera. Sailen arabera, hauek izan zuten beherakada: Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak (% 25,3), Haur eta gazte literatura (% 10,5) eta Unibertsitateaz kanpoko testuak (2010ean baino % 8,7 gutxiago). Aitzitik, Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak eta Literatura sailek gora egin zuten, % 41,9 eta % 12,8, hurrenez hurren.

II. TAULA.- ALEAK, SAILEN ARABERA. BILAKAERA. 2010. URTEAREKIKO ALDAKETA


Argitaratutako aleak (x 1.000)	2009		2010		2011		Aldaketa	
	Absolutuak	%	Absolutuak	%	Absolutuak	%	Absolutuak	%
Sailak, guztira	3.762	100,0	3.601	100,0	3.351	100,0	-6,9	
Literatura	288	7,6	294	8,2	332	9,9	12,8	1,7
Haur eta gazte literatura	958	25,5	949	26,4	849	25,3	-10,5	-1,0
Unibertsitateaz kanpoko testuak	2.239	59,5	2.064	57,3	1.884	56,2	-8,7	-1,1
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	108	2,9	56	1,6	79	2,4	41,9	0,8
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	98	2,6	143	4,0	107	3,2	-25,3	-0,8
Beste gai batzuk	71	1,9	96	2,7	100	3,0	4,6	0,3

2011n euskaraz argitaratutako aleen % 90,9 EAEko argitaletxeetakoak izan ziren. Haur eta gazte literatura (% 89,5 EAEn argitaratua) eta Unibertsitateaz kanpoko testuak (% 89,7 EAEn argitaratua) sailetan izan ezik, beste guztietan ehuneko hori baino handiagoa izan zen EAEn argitaratutako aleen kopurua. Euskaraz argitara emandako aleen % 7,9 beste autonomia erkidego batzuetakoak izan ziren, eta, kasu honetan ere, Haur eta gazte literatura eta Unibertsitateaz kanpoko testuak sailek gaititu egin zuten kopuru hori, % 9,1 eta % 9,5 lortuta, hurrenez hurren.

4. GRAFIKOA.- SAIL BAKOITZEAN EUSKARAZ ARGITARATUTAKO ALEEN BANAKETA, ARGITALETXE PRIBATUETAN, JATORRIAREN ARABERA (%-TAN)

Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
100,0	90,9	0,3	0,9	7,9

■ EAE ■ NFE ■ Ipar EH ■ Beste AE batzuk



Batez besteko argitaraldia euskaraz, sailen arabera

Batez besteko euskarazko argitaraldia izenburuko 1.769 alekoa izan zen 2011n. Jatorriaren arabera, batez besteko argitaraldiak hauek izan ziren: 2.050 alekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko argitaletxe pribatuetan; 556 alekoa, Nafarroako Foru Erkidegoko argitaletxe pribatuetan (behera egin zuen 2010. urtearekin alderatuta); 1.107 alekoa, Ipar Euskal Herriko argitaletxeetan, eta 732 alekoa, beste autonomia erkidego batzuetako argitaletxeetan (behera egin zuen 2010. urtearekin alderatuta).

Gutzizkoari erreparatuta, batez besteko argitaraldi handienak Unibertsitateaz kanpoko testuak eta Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak sailetan izan ziren, 2.115 eta 2.440 ale izenburuko, hurrenez hurren.

12. TAULA.- BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA EUSKARAZ, SAILEN ARABERA, 2011N. ARGITALETXE PRIBATUAK

	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
Batez besteko argitaraldia	1.769	2.050	556	1.107	732
Literatura	1.322	1.399	356	690	-
<i>Eleberria</i>	1.272	1.352	219	698	-
<i>Poesia, antzerkia</i>	900	971	434	299	-
<i>Bestelako literatura</i>	1.641	1.695	616	-	-
Haur eta gazte literatura	1.589	1.796	904	1.346	759
Unibertsitateaz kanpoko testuak	2.115	2.672	804	2.033	725
<i>Haur Hezkuntza</i>	2.488	3.245	-	-	194
<i>Lehen Hezkuntza</i>	2.682	3.143	-	2.033	1.273
<i>DBH</i>	1.424	1.975	-	-	613
<i>Batzilergoa</i>	1.340	2.270	483	-	695
<i>Lanbide Heziketa</i>	730	1.196	-	-	400
<i>Liburu eta material osagarriak</i>	2.302	2.337	109	-	-
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	965	999	-	-	641
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	2.440	2.553	534	-	-
Beste gai batzuk	1.092	1.118	-	-	647

Hurrengo taulan, batez besteko argitaraldiak 2009az geroztik izandako bilakaera dago jasota. Aurreko ekitaldietan bezalaxe, batez besteko argitaraldi osoak beheranzko joera motelari eutsi zion. 2011n, beherakada zertxobait handiagoa izan zen, 2010ean baino 147 ale gutxiago argitaratu baitziren izenburuko.

Sailen arabera, 2010etik 2011ra behera egin zuten bi sail nagusietako batez besteko argitaraldiek, hau da, Unibertsitateaz kanpoko testuak eta Haur eta gazte literatura sailetakoe; lehenengoan, 360 ale gutxiago izan ziren izenburuko, eta bigarreanean, 194 ale. Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak eta Literatura sailetakoko batez besteko argitaraldiak, berriz, hazi egin ziren, 1.164 eta 265 ale izenburuko, hurrenez hurren.

13. TAULA.- BATEZ BESTEKO ARGITARALDIA, SAILEN ARABERA. BILAKAERA. 2010. URTEAREKIKO ALDAKETA

	2009	2010	2011	Aldea
Guztira	1.999	1.916	1.769	-147
Literatura	1.148	1.058	1.322	265
Haur eta gazte literatura	1.919	1.784	1.589	-194
Unibertsitateaz kanpoko testuak	2.350	2.475	2.115	-360
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	1.206	899	965	66
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	2.193	1.272	2.440	1.164
Beste gai batzuk	1.580	1.540	1.080	-460

KATALOGOKO IZENBURUAK

Euskarazko izenburu bizien katalogoan 12.498 izenburu zeuden. Horien % 81,3 EAEn argitaratu zituzten; % 2,0, Nafarroako Foru Erkidegoan; % 2,1, Ipar Euskal Herrian, eta % 14,6, beste autonomia erkidego batzuetan.

14. TAULA.- KATALOGOKO EUSKARAZKO IZENBURUAK 2011 N. ARGITALETXE PRIBATUAK

	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
Guztira	12.489	10.149	250	262	1.827
% horizontala	100,0	81,3	2,0	2,1	14,6
Argitaratutako izenburuak	1.894	1.486	20	26	362
Katalogoko izenburuak / argitaratutako izenburuak	6,6	6,8	12,8	10,1	5,0

2011n, katalogoko izenburu guztien eta euskaraz argitaratutako izenburuen arteko erlazioa 6,6 izenburu bizikoa izan zen argitaratutako izenburu bakoitzeko, zenbateko osoari dagokionez (2010eko ratio berbera). Eremuen arabera, adierazle hori 6,8koa izan zen EAeko argitaletxe pribatuentzat; 12,8koa, Nafarroako Foru Erkidegoko argitaletxeentzat; 10,1koa, Ipar Euskal Herriko argitaletxeentzat, eta 5,0koa, beste autonomia erkidego batzuetako argitaletxeentzat.

Katalogoko izenburuak, sailen arabera

Hurrengo orrialdeko tauletan, katalogoko izenburuei buruzko sailkako datuak ageri dira.

Unibertsitateaz kanpoko testuak eta Haur eta gazte literatura sailek izan zituzten, nabarmen, ehuneko handienak euskarazko katalogo osoan, % 37,6 eta % 31,1, hurrenez hurren. Bi sailen artean, euskarazko katalogoaren % 68,7 batu zuten.

Bi sail horiek euskarazko katalogoaren guztizkoaren barruan izan zuten ehunekoa askoz handiagoa izan zen beste autonomia erkidego batzuetako argitaletxeen kasuan, katalogoaren % 92,3 hartu baitzuten. Gainerako eremuetako argitaletxeei dagokienez, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian oso ehuneko handiak lortu zituzten Literatura saileko izenburu biziak (% 66,5 eta % 51,9, hurrenez hurren).

15. TAULA.- KATALOGOKO EUSKARAZKO IZENBURUAK, SAILEN ARABERA, 2011N. ARGIALETXE PRIBATUAK

	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
Guztira (balio absolutuak)	12.489	10.149	250	262	1.827
Literatura	1.977	1.609	166	136	65
<i>Eleberria</i>	1.443	1.142	129	116	55
<i>Poesia, antzerkia</i>	229	213	3	10	3
<i>Bestelako literatura</i>	305	254	34	10	7
Haur eta gazte literatura	3.887	3.314	10	60	503
Unibertsitateaz kanpoko testuak	4.694	3.448	41	21	1.184
<i>Haur Hezkuntza</i>	689	586	-	5	98
<i>Lehen Hezkuntza</i>	1.705	1.096	1	16	592
<i>DBH</i>	1.380	977	1	-	403
<i>Batzilergoa</i>	300	254	11	-	35
<i>Lanbide Heziketa</i>	42	42	-	-	-
<i>Liburu eta material osagarriak</i>	579	493	29	-	57
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	1.098	1.061	-	-	37
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	329	275	33	11	10
Beste gai batzuk	505	442	-	34	29

	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
Guztira (balio absolutuak)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Literatura	15,8	15,9	66,5	51,9	3,6
<i>Eleberria</i>	11,6	11,3	51,8	44,3	3,0
<i>Poesia, antzerkia</i>	1,8	2,1	1,0	3,8	0,2
<i>Bestelako literatura</i>	2,4	2,5	13,8	3,8	0,4
Haur eta gazte literatura	31,1	32,7	4,0	22,9	27,5
Unibertsitateaz kanpoko testuak	37,6	34,0	16,5	8,0	64,8
<i>Haur Hezkuntza</i>	5,5	5,8	-	1,9	5,4
<i>Lehen Hezkuntza</i>	13,6	10,8	0,3	6,1	32,4
<i>DBH</i>	11,1	9,6	0,3	-	22,0
<i>Batzilergoa</i>	2,4	2,5	4,4	-	1,9
<i>Lanbide Heziketa</i>	0,3	0,4	-	-	-
<i>Liburu eta material osagarriak</i>	4,6	4,9	11,5	-	3,1
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	8,8	10,5	-	-	2,0
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	2,6	2,7	13,0	4,2	0,5
Beste gai batzuk	4,0	4,4	-	13,0	1,6

Hurrengo taulan, izenburu biziak 2009az geroztik izandako bilakaera ikus daiteke, sailen arabera, baita 2010. urtearekiko aldaketa ere.

2010. urtearekin alderatuta, izenburu biziak kopuru osoak % 0,7 egin zuen gora 2011n. Sailen arabera, nabarmen hazi zen Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak saileko izenburuen kopurua, % 24,6 hain zuzen ere. Gainerako sailtako izenburu kopuruak, berriz, behera egin zuen zertxobait (Beste gai batzuk sailekoak izan ezik).

16. TAULA. IZENBURU BIZIAK, SAILEN ARABERA. BILAKAERA. 2010. URTEAREKIKO ALDAKETA

	2009		2010		2011		Aldaketa	
	Absolutuak	%	Absolutuak	%	Absolutuak	%	Absolutuak	%
Sailak, guztira	12.031	100,0	12.396	100,0	12.489	100,0	0,7	
Literatura	1.980	16,5	2.099	16,9	1.977	15,8	-5,8	-1,1
Haur eta gazte literatura	3.572	29,7	3.911	31,5	3.887	31,1	-0,6	-0,4
Unibertsitateaz kanpoko testuak	4.909	40,8	4.765	38,5	4.694	37,6	-1,5	-0,9
Testu zientifikoak eta gizarte zientzietakoak	1.050	8,7	1.099	8,9	1.098	8,8	-0,1	0,0
Liburu praktikoak eta dibulgaziozkoak	229	1,9	264	2,1	329	2,6	24,6	0,5
Beste gai batzuk	290	2,4	259	2,1	505	4,0	95,3	2,0


Argialetxe pribatuetako katalogoko euskarazko izenburuen % 81,3 EAEko argialetxeek plazaratu zituzten.

Sailen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan argitaratutako izenburu bizen ehuneko guztizko kopurua baino handiagoa izan zen sail guztietan, Unibertsitateaz kanpoko testuak sailean izan ezik (% 73,4); izan ere, sail horretan, beste autonomia erkidego batzuetako argialetxeei zegozkien izenburuen % 25,2.

5. GRAFIKOA.- KATALOGOKO EUSKARAZKO IZENBURUEN BANAKETA SAILEN ARABERA, ARGIALETXE PRIBATUETAN. JATORRIAREN ARABERA (%-TAN)

Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
100,0	81,3	2,0	2,1	14,6

■ EAE ■ NFE ■ Ipar EH ■ Beste AE batzuk



MERKATURATZEA

2011 KO FAKTURAZIOA

2011n, euskarazko liburuengatikoko fakturazioa 37.629 mila eurokoa izan zen guztira, hau da, 2010ean baino % 3,5 handiagoa. Fakturazio guztiaren % 87,1 EAEko argitaletxe pribatuen merkataritza jarduerari zegokion.

17. TAULA.- EUSKARAZKO FAKTURAZIOA 2011 IN. ARGITALETXE PRIBATUAK

	Guztira	EAE	NFE	Ipar EH	Beste AE batzuk
Guztira (milaka euro)	37.629	32.767	76	192	4.594
% horizontala	100,0	87,1	0,2	0,5	12,2

Fakturazioaren zenbatekoa, sailen arabera

